

ELKARRIZKETA: JABIER RETEGI, MU-KO ERREKTOREA



# Arrasate

P R E S S

1999ko  
uztailak 16  
459. zenb.

## Lezetxikiko altxorra

IKUSPEGIA: JM VELEZ DE MENDIZABAL • KIROLAK: MONDRAREN BATZARRA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: I. ZABALETA • KULTURA ELKARRIZKETA: N. MAKAZAGA



**Ray-Ban** **avette** **ck** **KILLER LOOP**  
**GUCCI** **OAKLEY**

**PREZIO BEREZIAK**  
**APROBETXA ZAITEZ**

**AUKERARIK ZABALENA**

TXAPEL HAU ZURETZAT EGUZKITAKO BETAURREKOEKIN

**proba itzazu!** Erabili eta botatzeko lentilla

**egunerokoak** Erabili eta botatzeko lentilla

**2.400** pta

**hilabetekoak** Erabili eta botatzeko lentilla

**BAUSCH & LOMB**

Eta 3 hilabeteko "pack"-a erosita toaila hau zuretzat

**EGUZKITAKO BETAURREKOEN KANPAINA**

**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**

BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

**ESKUSIBAN**

**AIR TITANIUM**

PISURIK GABEKO BETAURREKOAK

Arinak, azalerako kalterik gabekoak. LINDBERG-ek patentaturiko titaniozko betaurrekoak, torloju, errematxe eta soldadura gabekoak.

*Kalitateak, mugarik ez.*

**ARGI-PLASTIC**

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
 Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
 Tel.: 943 77 11 30  
 ARRASATE



# Politikaren ilogika barregarria (udan)

risten ari zaizkigu oporrak eta gorputza zein gogoak aisialdiko egokitzapenerako joera hartu dutela esango nuke.

Egia esan, ez da gaurkoa jardunaldi neke eta eramanezin horietakoa izan eta, areago oraindik, txantxa batzuk egiteko beta ere izan dugu lankideok. Ez dakit horietako nor esan duen Gernikako Udaletxean bazela oraintsu arte, kanpo harremanetarako zinegotzi bat —bere zereginen artean nazioarteko gaiak zeramatzana— euskaraz eta espainieraz gain, beste hizkuntzarik ez zekiena. Lagunaren ustez, pertsonaia ez zen egokiena kargu horretarako.

Politika ezintasunaren artea dela gogorazi behar izan diot eta euskal Arartekoaren elebakartasunaren kasua azaldu diot, gizarte normalizatu batean inondik ere planteatuko



J.M. Velez de Mendizabal

ez zena. Baina badira barregarriagoak, EITBko zuzendaritza nagusirako arestian promozionatua izan den gizonarena bezalakoa. Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia izan da urtetan. Bada, ez da gai espainiera beste hizkuntzaz bere burua aurkezteko. Surrealista? Orain, itxurie, kargu berriaren gurdira igo ahal izateko

zin egin dio —nori?— hiruzpalau hilabatean euskara menderatuko duena.

Baina zer eska dakioko herri bati, bere bi hizkuntzetako bat indar osoz gorrotatzen duen norbait Hezkuntza sailburu bezala izendatzearen aurrean ezaxolatiarena egiten duenean? Urte asko ez dira, merkataritzarekin zerikusia zuen bidaia batera gonbidatu ninduten, Europatik zehar. Taldeko burua garaiko Industria sailburua zen. Hizkun-

tzetarako aipatzen ari naizen ezgaitasun kronikoaz aparte, gizonak ez zekien ezta tutik ere txangokideon industria motari buruz. Lotsagarri gertatu zen. Hori bai, sailburua eta bere zenbait laguntzailek ez zioten, guztion diruarekin betetako euren sakelak astintzeari balaztarik ipini. Azken hauteskundeetan europar diputatu aukeratua izan aurretik, Merkataritza sailburu zenarekin *antzeko parecido* genuen.

Enpresa partikularrean jazo ezin daitezkeen kasuak ematen dira politikan. Inori ez zaio otuko nazioarteko merkataritza zuzendaritzarako elebakar bat aukeratzea, eta industria estrategiaren planifikatzaileak zertxobait ezagutu beharko du, berari dagokion sektoreaz eta —oro har— industriaren gorabeheretz. Politikan ez. Eta, diodanaren beste eredu bat jartzearen, hona hemen azken hau: Emakundeko zuzendari Txaro Arteaga aukeratu baino lehen, izan zen beste pertsona bat kargurako boletoa zituen. Baina norbaiti gehiegi iruditu zitzaion ideia... hautagaia gizonetzkoa baitzen! Erositako prezioan saldu dut.

**“Enpresa partikularretan jazo ezin daitezkeen kasuak ematen dira politikan”**

*“Bailara hau nahiko bakartuta dago eta beharrezkoak ditu errepideak: Eibar-Gasteiz eta Beasain-Durango, esate baterako”*

**Jabier Retegi**

# 250

**milioi pta kostatuko zaio Euskadiko Kutzari “2000. efektua” saihestea**

Euskadiko Kutxa orain bi urte hasi zen “2000. efektua” saihesteko lanetan. Lantalde berezia sortu zuen sistema informatikoak aztertzeko eta egin beharreko aldaketak egiteko. Antza denez, emaitzak onak izan dira.

ITURRI ONETIK

## Deba Garaia, Gorena ala Goiena?

Ikusirik Deba Behereak izena aldatu zuela, Deba Barrena jarriz, Euskaltzaindiak idatzi bat bidali zion Deba Garaiko Mankomunitateari, esanez hemen ere komeniko litzatekeela hemengo euskararekin bat zetorren izena aukeratzea. Horretarako izen batzuk proposatzen zituen: Debagorena eta Debagurena, besteak beste.

Toponimiari buruzko jardunaldi batzuetan, aldiz, Patxi Salaberri bezalako aditu zenbaitek esan omen zuten Euskaltzaindiak proposaturiko izenak interpretazio oker batetik zetozela eta egokiena Debagoiena litzatekeela.

Mankomunitateak itxaron egingo du bere estatutuak aldatu arte, izena ere egokitzeko. Baina orain zein aukeratu du, okerra omen dena ala Euskaltzaindiaren onspen ofiziala ez duena? Erantzuna, Euskaltzaindiak.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11, Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariek:** Marijo Desgracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuegelo. **Asteburuetako berriemakia:** Monika Belastegi. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketak arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua:** 1124/86. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoeko konertzatua.** **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta izentien erantzunikizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuegelo.

Arrasateko Udaleran laguntza  
Gipuzkoako Foru Aldundian laguntza  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza



## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 16**  
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin
- Larunbata, 17**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Igandea, 18**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Astelehena, 19**  
• Gauez eta egunez: Korkuera, Musakola
- Astearte, 20**  
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin
- Asteazkena, 21**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 22**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxoak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Igualetoia 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 943 79 39 00  
(emakumeak) 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Gurutze Gorria

- Bergara 943 76 55 76

### DYA

- Antzuola 943 78 71 57

### Anbulatorioak

- Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espesialitateak 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11  
• Fax zenbakia 943 03 05 14  
Aretxabaleta 943 79 74 58  
Aramaio 945 45 51 16

### Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

- Oñati 943 78 04 11  
Bergara 943 77 91 06  
Arrasate 943 79 14 39  
Aretxabaleta 943 79 10 52  
Eskoriatza 943 71 44 07

### Ertzaintza

- Arrasate 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

- Udal taldea 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

### Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62  
Gasa 900 40 05 23  
943 79 78 44  
943 79 76 78

### Garraioak

- Taxiak 943 79 12 22  
PESA 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

- Iturbide Egoitza 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

- Monterron 943 77 01 05

### Irratia

- Arrasate Irratia 943 79 58 77

## ARRASATE INTERNETEN

**E**gia esan, aspaldikoa nuen Arrasateri buruz Internetek zer esaten duen jakiteko gogoia.

Ordenadorea eta Internet jarri dizkidatenean horixe izan da egin dudana lehenetariko gauza bat. Altavista bilagailuan "Mondragon" hitza sakatu dut lehendabizi. Emaizta: hamar toki agertu zaizkit, izen horrekin. Lau lotuta zeuden kooperatibekin. Bat Mondragon Unibertsitatearekin. Bestea barazkizaleentzako jatetxe bat zen, enpresa bat, Enrique Mondragon izeneko pertsona baten webgunea eta software konpainia batena. Azkena ez dut asmatu zerena den.

Ondoren "Arrasate" hitza idatzi dut. Emaizta ez da hain oparoa izan oraingo honetan. Sei webgune agertu dira izen horrekin. Horietatik lau kooperatibekin lotuta. Bat Arrasate herriari buruzkoa eta beste bat Pam Arrasate neskaren web orria.

Hurrengo batean sartu egingo naiz toki horietan ea zer aurkitzen dudana ikusteko. Esango dizuet.

J.A.M.

## Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin, araudi berria ezarri dugu, gutunetako sailean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu, nahitanahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Horik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordeen kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarrik ez da argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



# Zer deritzozu euskara, galiziera eta katalana ofizialak egitea Espainian?

*Pasqual Maragall PSCko politikari katalanak egin berri du proposamen hori.*



**Patxi Agirrebeña**  
(27 urte)  
Langilea

Ondo deritzot. Administrazio zentrolean euskara erabiltzea ekarriko luke.



**Pili Alzelai**  
(45 urte)  
Langilea

Zaila izango da hori lortzea, nire ustez.



**Irati Zubizarreta**  
(18 urte)  
Ikaslea

Ondo deritzot.



**Ainhoa Iregi**  
(17 urte)  
Ikaslea

Guztion eskubidea da eta ondo deritzot. Orain gertatzen dena bereizkeria hutsa da.



**Maria Dolores Alvaro**  
(51 urte)  
Etxekoandrea

Ondo deritzot. Eskaerak egitea ona da.




**Manuel Pineda**  
(33 urte)  
Langilea

Beste probintzietako biztanleei agian interesatuko zaie.



**Gotzon Altube**  
(27 urte)  
Langilea

Ez dakit, arraroa iruditzen zait, baina ondo ikusten dut.



**Amador Martinez**  
(43 urte)  
Langilea

Ez litzaidake axolako koo-fizialak izatea, baina ez dakit posible izango den alderdi espainolisten aldetik.

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

*Sagardotegia*

**ITURRIETA**

Airaga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99



# Arrasate

## LANAK

### ASFALTATZE LANAK

Astelehenean San Bixente Ferrer kalean eta asteartean Otoran, Monterron parean. Autoak kendu beharko dira.

### KONTZEZIÑON

Saneamendu lanak Zerka-ostetatik Garibaira bitartean.

### AGERRE PLAZAN


Oraindik ez dira lanak amaitu.

### A-20 ETA ZALDISPEN

Oinezkoen pasabidea egiten ari dira.

### OBENERREKAN

Oinezkoen pasabidea hasiko dute.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 16**

Lainotua esnatuko da eguna, baina orduak aurrera joan ahala, ostarteak agertuko dira.



**LARUNBATA 17**

Lainoak areagotuko dira eta euri arriskua izango dugu. Haizeak Iparraldetik joko du, ahul.



**IGANDEA 18**

Lainoak desagertzen joango dira egunak aurrera egin ahala. Haizeak Iparraldetik joko du, indarge.

## Ilargia



**Ilgora**

Uztailaren 20an, asteartean, ilgora izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean:**  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Ostiralean**  
18:30 (Otoitz ordua)

**Larunbatean**  
18:30 (Bezpera abestiak)  
19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)


### Santa Teresa

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

**Igandean**  
10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%88,9**




## Urteurrena





Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Udalak udal pilotalekua egiteko lanak Construcciones Amenabar enpresari eman zion, 387 milioi pta.ren truke.
- MCCk eta ONCEk 500 elbarri kontratatzeko hitzarmena sinatu zuten.
- Ivan Velasco txirrindulariak Ulma-Cegasarekin sinatu zuen, afizionatuetan.





**ANTZUOLAN. HERRI BARRUAN**  
**8 ETXEBIZITZA ADOSATU,**  
**LORATEGIAREKIN**  
**LASTER ERAIKIKO DIRA**



**INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:**  
**LANDATXO S.A. 943 76 90 00**



# 16

## ostirala

■ ZINEA

*American histori X*, Alai zineman, arratsaldeko 22:00etan.

■ SANTAMAINAKO JAIK

- 10:00 diana eta buruhandiak.
- 10:00 Bolo-Palma txapelketa.
- 11:00 haurrentzako jolasak Makatzenan.
- 11:30 Pilota txapelketa-ko finalak, Makatzenan.
- 13:00 Erretiratu eno-enezko meza La Merceden. Ondoren bazkaria izango dute.
- 17:30 pilota partida Oberrekako pilotalekuan.
- 17:30 umeentzako jolasak Santa Teresako auzokideek antolatuta.
- 18:30 herri kirolak eta pentathloi txapelketa.
- 23:00 dantzaldia *Carisma* taldearekin.

■ KONZERTUA GAZTETXEAN

*Velocidad Absurda* Zaragozako brutal death doinuak jotzen dituen taldeak eta *Suffering Daon* melodic black death doinuak jotzen dituen talde bilbotarrak kontzertua eskainiko dute Gaztetzean, 22:00etan.

■ TECHNO JAIALDIA

Begarako Jam aretoan Techno jaialdia egongo da *Luke Slater* eta *Ben Sims* DJ ezagunekin.

■ KONZERTUA ARETXABALETAN

*Offset* eta *Anger* talde mondragoetarrek kontzertua eskainiko dute Aretxabaleta-ko gaztetzean 22:00etan.

# 18

## igandea

■ ZINEA

*Flores de otro mundo*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ SANTAMAINAKO JAIK

- 10:00 diana eta buruhandiak.
- 10:00 Bolo-Palma txapelketa.
- 11:30 jaialdi herrikoia Mentu plazan.
- 12:00 Meza nagusia La Merceden.
- 12:00 Dastapen jaialdia Agerre plazan, Corazon de Encina zentruaren laguntzarekin.
- 12:05 kalejira fanfarreakin.
- 16:00 umeentzako jolasak.
- 16:30 mus txapelketa Fronton tabernan (izen ematea ordu erdi lehenagora arte).
- 16:30 Motor Txikien txapelketa Santa Teresan.
- 18:30 kalejira fanfarreakin.
- 19:00 antzerkia Mentu plazan.
- 22:00 dantzaldia *Carisma* taldearekin.

# 19

## astelehena

■ ZINEA

*Flores de otro mundo*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

# 20

## asteartea

■ ZINEA

*Flores de otro mundo*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

# 21

## asteazkena

■ DANTZA EMANALDIA

*Lore Gazteak* dantza taldeak, dantza emanaldia eskainiko du Monterronen, gaueko 22:00etan. Euria eginez gero, Amaia antzokian izango da. Sarrera 500 pta.

# 17

## larunbata

■ ZINEA

*American histori X*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ KINTO BAZKARIA

69ko soldadugaiek, 1948an jaiotakoek, urteroko bilkura egingo dute. 12:00etan meza izango dute San Joan parrokian. Argazki ofiziala Monterronen aterako dute. 14:30ean bazkaria izango dute Mondragon hotelean.



**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

**UNZUETA**  
JATETXEA

Karta  
Menu bereziak  
Eguneko menua  
Plater konbinatuak

Zabola auzoa. ARAMAIO.  
Tel.: 945 44 50 95



# 22 osteguna

## ■ PORTASOLEKO JAIK

Ostiralean, uztailaren 16an, hasiko dira Aretxabaletako Portasol auzoko jaiak. Igandera bitartean ekitaldi ugari egongo dira ondo pasatzeko.

## ■ ZINEA MONTERRONEN

*Muertos de risa*, filma eskainiko dute Monterronen, Aire Zabaleko zine zikloaren barruan, 22:30ean. Sarrera 450 pta kostako da.

## ■ MAALAKO ERRABALEKO JAIK

- 08:00 etxaferoak
- 16:00 umeentzako jolasak eta txokolate jana.
- 19:00 trikitixa.
- 21:00 afaria Estradetan.
- 22:30 dantzaldia.
- 23:00 suzko erruberak.

## ■ NAN BULEGOA

Uztailaren 21ean, asteazkenean, irekiko dute berriz ere nortasun agirira egin edo berrizteko bulegoa. Honako hauek izango dira orduak: 09:45etik 10:45era, 364-404 zenbaki bitarteak, 10:45etik 11:45era, 405-444 zenbaki bitarteak, 11:45etik 12:45era, 445-484 zenbakiak eta 12:45etik 13:00era, 485-500 zenbaki bitarteak.

## ■ FERRERIASEKO JAIK

Dagoeneko salgai daude Ferrerias auzoko jaietarako auzo afarirako txartelak. Interesatuak Alicia janari dendatik (garai batean Foronda) edo Artea Enmarkazioak dendatik pasa daitezke.

## ■ AHT-REN AURKAKO KANPALDIA

Uztailaren 16tik 25era bitartean Uharte-Arakilen egingo dute kanpaldia AHTren aurkako asanbladakoek. Hitzaldiak, ikastarokak, mendi irteerak, zine emanaldiak eta bestelakok egiteko aukera izango dute bertaraten diren guztiek. Kanpaldiko telefonoa 629 89 12 56.

## ■ JOKIN ZAITEGI

XIII. itzulpen laburren sariketa jarri du abian dagoeneko AEDk. Edozein pertsonak har dezake parte eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez

daitezke. Lanak 15-30 orri bitarteak izan beharko dira eta jatorrizko testuak 1996-1999 bitartean idatzitakoak. Lanak urriaren 29a baino lehen aurkeztu behar AEDn. Irabazleak 200.000 pta irabaziko ditu eta bigarren sarituak, berriz, 100.000 pezeta.

## ■ ARGAZKI LEHIAKETA

"Gazteak eta 2000. urtea" X argazki lehiaketa abiarazi du Gazteria eta Emakume sailak, ASA taldearekin batera. Lanak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da eta sariak 75.000 eta 50.000 pta.koak izango dira. Informazio gehiago Udaleko Gazte Zerbitzuan edo 943 77 00 65 zenbakian.

## ■ UR ETA ZABOR ZERGAK

1999ko lehenengo hiru hilabeteko ur eta zabor zergaren ordainagiriak uztailaren 24a bitartean ordain daitezke udaletxean. Epe hori pasatu ondoren, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

## ■ SEXUALITATE BULEGOA

Sexualitate Informazio eta Orientazio Bulegoak aldatu egingo du udako ordutegia. Uztailaren zehar astelehenetan eta ostegunetan goizeko 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik, Garibai etxean.

**HARRIGARRIA!**

*Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon*



**IBIZA**

Hotel Miami\*\*\*  
Pentsio erdia  
Irteera uztailaren 22an  
Prezioa pertsona bakoitzeko

**62.600**

**VIJES EROSKI**  
BIDAIAK

► Prezio Onak baino gehiago

LARUNBATETAN, 22:00AK ARTE EROSKI HIPERMERKATUETAKO BULEGOETAN



**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarreko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



**USTEAK USTE**

*Mondragon Unibertsitatea*

**A**ldaketa sakonak egin behar ditu Mondragon

Unibertsitateak datozen hamar urteen bueltan: hirugarren zikloa indartu (masterak, doktoretzak, ikerkuntza aplikatua...), campus bat sortu eta unibertsitate irakaskuntza erabat lotu gure enpresekini.

Horrezaz gain, bailaran ematen den unibertsitate aurreko irakaskuntzan ere eragingo du, XIX. mendeko ereduak alde batera utzi eta XXI. mendekoetara egokitzeko.

Jabier Retegi bultzatzen ari den egitasmoak iraultza ekarriko du herrira eta bailarara. Mondragon Unibertsitatea aldaketaren motorra bihurtuko da. Herria eta bailara informazioaren aroan kokatuko ditu, ezinbesteko baldintza etorkizunari ganoraz aurre egiteko.

Bailara honetan sekulako zorzea dugu unibertsitatea dugulako. Herritarroi eta gure egintariei komeni zaigu jakinaren gainean egotea MUREn asmoei buruz, guk ere eragiteko aldaketa horietan eta behar izanez gero, guk ere tiraka egiteko gurditik.

Joxe Aranzabal



**Kable telebista eta gu**

\* Iñaki Zabaleta

**E**uskal Herrian, "kable bidezko komunikazio digitala" errealitate garrantzitsua izango da laster, hiruzpalau urtean, eta euskaldunok prest egon behar dugu auzi horren aurrean. Izan ere "auzia" baita euskaldunontzat, alegia, euskararen garapenerako galdu edo irabazteko gaia.

Zer esan nahi du "kable bidezko komunikazio digitalak"? Bada, herriko kaleetan zehar lurpetik doan kable bat etxeraino sartzea eta kable horretatik hurrengo komunikazio zerbitzuak izatea: telebista, telefonoa, internet, eta abar, eta abar.

Zer garrantzia du "digitala" izateak? Kaleko berbetan esanda, hiru efektu ditu: lehen, zerbitzu guztiak ordaindu egiten direla hilero, baita telebista ere; bigarrena, zerbitzu aukera gehiago izaten direla (kanal gehiago); eta hirugarrena, jendearen kontrol handiagoa dutela konpainiek eta erakundeek. Beraz, ia osotara kontrolatuta gaude gure

bizitzan: kreditu txartelen bidez bankuek badakite zer non gastatzen dugun; laster, telekomunikazio digitalak hedatzean, baita zer ikusi, norekin berba egin eta zertan entretenitzen garen ere jakingo dute.

Hala ere, nire ustez, norberaren pribatasunaren defentsagatik ez genituzke telekomunikazio zerbitzu hauek baztertu behar; hurbiletik behatu eta jagon bai, ordea.

Kable bidezko komunikazio digital horiek kudeatzaile batzuen eskuetan egongo dira (Telefonica Española, Nafarroan Retena, eta EAEn Euskaltel). Kudeatzaile horiek jendeari, guri, kable bidezko zerbitzu horietan har-

pidedun egitea eskatuko digute. Telebistaren kasuan, adibidez, oinarriko kanal sorta bat eskainiko digute (beste eskaintza batzuen artean), hilean 2.500 pezeta inguru ordaintzearen truke. Oinarriko sorta horretan 25-30 kanal izango ditugu: orain teiltatuko antenaz hartzen ditugunak gehi beste batzuk. Zerbait izango dira euskaraz? Euskaldun pertsona eta elkarre arruntek nola parte hartu ahal izango dute kanal horietan? Galdera hauek dira artikuluaeren hasierako "auzia".

Seguraski, ETBk bi edo hiru kanal eskainiko ditu euskaraz, Euskaltel-en oinarriko sorta horretan, baina hori ez da aski. Herrietako telebistak edo telebista komunitarioak garatu eta sendotu behar ditugu, euskal komunitateak ere bere kanalak izan ditzan. Izan ere, funtsezkoa da euskarazko kanal guztiak "oinarriko kanal sortan" egotea.

Nire ustez, euskal hizkuntza komunitateko herri telebistek, programa ekoizleek, Topagunekoek, eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, "lantalde" bat sortu beharko lukete auzi honi guztiari aurre egiteko, eta bai EITBekin, bai Euskaltel eta Telefonicarekin, bai gobernuekin mintzatu eta, elkarlanaren bidez, proiektuak prestatu euskarazko kanalen eskaintza, kudeaketa eta finantziarioa bermatzeko.

\*Irakaslea eta idazlea

**“  
Funtsezkoa da  
euskarazko kanal guztiak  
'oinarriko kanal sortan'  
egotea  
”**

**BITTORI  
ERRETEGIA**  
Eguneko menua • Kartako menua  
**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**LAKET**  
Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis  
Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72



## ANTZUOLA


### ① Piedade jaiak

Herriko jaiak atzo hasi ziren iluntzeko txupinazo eta Aureskuarekin.

Igandea arte iraungo dute eta ekitaldi nahikotxo izango dira aukeran. Ekitaldi nagusiak aipatzearen, gaur kontzertua izango da Beheko Auzoko kirol gunean, Brasilgo "Ratos de Porao" eta Kanariar Uharteetako "Ratas" taldeekin 22:30etik aurrera. Bihar, berriz, arratsaldeko 18:30ean, dagoeneko guztiok ezagutzen dugun Mairuaren Alardea izango da eta gaueko 22:30ean, berriz, Bergara eta Antzuolaren arteko pilota partida aipatu beharko genuke. Berraondo-Elkoro eta Etxaniz-Zezeagaren aurrez aurre arituko dira pilotalekuan.

Igandean, ostera, Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako herri bazkaria egingo da. Ondoren, herriko presoek egindako eskulanak ikusteko aukera izango dute herritarrek.

Honetaz gain, galiziar festa ere izango da aukeran. Donostiako talde batek, Galiziako doinu, dantzak eta jakiak ekarriko ditu Antzuolara.



## BERGARA

### ② Artistak lanean

Begarako Artisten Elkarteak (Beart), gaur irekiko du bere egoitza berria, Bolu kaleko 49. zenbakian. 400 metro karra-tu, ditu toki berriak, lau gelatan banatuta. Honen bitartez

Beart elkarteak zerbitzu hobe eskaini nahi die bere kideei, orain arte izan dituzten gabeziak konponduz.

Etxearen irekiera aprobe-txatuz, egunotan pintura, zera-mika eta eskultura erakusketak bat irekiko da herrian.

## OÑATI

### ③ "Batetik Bestera"

Opor garaia heldu da eta laugarren urtez, Oñatiko Gaztelekuak argazki eta literatura lehiaketa antolatu du. "Batetik Bestera" izeneko lehiaketa honetan 14 urtetik gorako edonork parte har dezake, bai bakarka zein taldeka.

Argazkien kasuan, asko jota 12 aurkeztu ahal izango dira, 15x10 formatoan. Idatzien kasuan, berriz, DIN A4 formatoan aurkeztuta, zazpi orrialde baino gutxiagoko lanak izan beharko dira. Gaiak zerikusirik izan beharko du oporrek.

## ELGETA

### ④ Mendi bizikleta txapelketa

Igandean XV. Mendi bizikleta txapelketa jokatu da. Herriko txirindulari elkarteak antolatu du, lehenengo, bigarren eta maila bereziko zaleei begira. Irteera goizeko 10:30ean izango da. Antolatzailleen arabera, arratsaldeko 13:00ak pasatxo izango dira mendi irteera bukatu orduko.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



## astea bi hitzetan

### ■ CIM Donostiara

CIM hizkuntza eskolak *Bai and By* izeneko irakaskuntza mota eskainiko duen zentro berria irekiko du Donostian datorren irailean. Hasieran 35 ordenadorekin hasiko dira, baina apurka-apurka areagotzeko asmoa dute.

Aurten Gasteizen irekitako zentroarekin eta iraillean Donostian zabalduko duenarekin, CIM Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburueta lortuko da.

Datorren ikasturteari begira, Arrasateko *Bai&By* zerbitzua ere handitu eta zabaldu egingo da.

Orain duten eskaerari aurre egiteko beharrezkoa da ordenadore eta gela gehiago ezartzea. Lanak udaran egingo dira; beraz, irailera-ko prest izango da.

### ■ "Ekipo 7", agur

Bederatzi urte hauetan San Joan Bautista parrokia eraberritzeaz arduratu den "Ekipo 7" izeneko lan taldeak, pasa den astelehenean egin zuen azken bilera.

Egin beharreko lanak oparo bete ditu lan talde honek, izan ere, hasieran ezarri ziren helburuak bete zitez gain, aipagarria da azkenean inolako zorrik barik utzi dutela parrokia. Beraz, zorionak eman beharrean gaude.

### ■ Arantza Ozaeta UEUn

Udako Euskal Unibertsitateak egin ditu aurtengo udako ikastaroak Miarritzen. Joan den asteartean poesia ekitaldia izan zen eta hantxe izan zen Arantza Ozaeta arrasatearra Gerardo Markuleta idazle oñatiarrarekin

eta beste hiru lagunekin batera poesia irakurtzen.

Uztailaren 20an, Udako Euskal Unibertsitatea Iruñera doanean, Nafarroako hiriburuan entzun ahal izango zaie.

Talde honek dagoeneko zazpi saio eskaini ditu. Beraien helburua, besteak beste, irakurzaletasuna bultzatzea da.

### ■ Degurixako kanpaldia

Urtero moduan, elbarri-tuentzako kanpaldia antolatu da Degurixan. Egiten den 27. aldia izango da hauxe eta uztailaren 23tik 25era arte egingo dira hantxe.

Lagun talde bat hasi zen kanpaldi hau antolatzen eta halaxe izaten jarraitzen du. Dirudienez, gainera, nahiko arrakasta lortu izan du bes-tetan egin denean.

### ■ Ekologisten ibilaldiak

Deba Garaiko ekologistek lan ugari izan zuten asteburuan. Larunbatean Bergaran bildu ziren Eibar-Gasteiz autobidearen aurka. Bergaran hasita dauden lanak ikustea eta errepedearen eraikuntza salatzea ziren helburuak. Igandean, berriz, 15 bat lagun bildu ziren Portaloian Debaraino bizikletan joateko. Deba ibaia garbitzea zen eskaera.



“

Asteko lanorduak gutxitzea joera jarraitua da gaur egungo gizartean eta ez dago arrazoirik joera hori eteteko. Arazoa izan daiteke gizarteak joera horri jarri nahi dion errotioa. Modu sinplean eta laburrean esanda: elkartasun arazoa izateaz gain, kostu eta produktibitate arazoa ere bada, lehiakortasun arazoa azken batean, ondo eraman ez bada, kontrako ondorioa —enplegua suntsitzea, alegia— izan dezakeena”.

**JABIER SALABERRIA**

*TU-Lankide*

1999ko ekaina



**PUB  
HAIZEA**



**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

Tel.: 943 79 22 70



# Astiro doa Gobernu Batzordearen osatzea

Joan den astean alkate berriak adierazi zuen hamabost bat egunean Gobernu Batzorde berria eginda egon zitekeela. Hala ere, badirudi legeak ezarritzen dituen hogeita hamar egunak beharko direla udal gobernu zahazteko.

Joan den astean bertan Xabier Zubizarreta Lizarraga-Garaziko ituna sinatu zuten gainerako alderdiekin bildu zen udaletxean.

EA-EAJ koalizioak programa proposamena jarri zion mahaiaren gainean eta baita eskari bat. Koalizioak batzorde hauek eskatu omen zizkion EHri: hirigintza, zerbitzu teknikoak eta mantenimendua,



EA-EAJk lau batzorde eskatu dituzte, tartean hirigintza.

auzoak eta zerbitzu sozialak.

Ezker Batuak, berriz, berriro jakinarazi zion prest dagoela Gobernu Batzordean parte hartzeko, baldin eta

alderdi guztiek gutxieneko adostasuna lortzen badute programaren inguruan. Ezker Batuak, gainera, orain arte bezala baino nahiago luke

lau alderdiak batera elkartzea negoziazioak aurrera eramateko. Alderdi honek zerbitzu sozialen batzordea espero omen zuen, baina koalizioak berretzat eskatu duela ikusirik, zer gertatuko zain dago.

EHk ere badirudi jakinarazi diela bere egitasmoa gainerako alderdiei, azter dezaten hauek ere.

Kontuak kontu, EA-EAJ eta Ezker Batuak EHren erantzunaren zain daude eta honek ere denbora behar du eskeriak eta eskaintzak orekatu ahal izateko. Hurrengo bilerara gaur, ostiral arratsaldean, egingo dute. Ikusi egin behar zer ateratzen duten garbi.

## Bost atxilotu Arrasaten

Ertzaintzak bost gazte atxilotu zituen astelehen goizaldean Arrasateko irteerako alkoholemia kontrol batean, ustez drogak saltzen zizutzelako.

Ertzaintzak jakitera eman zuenez, D.F.B., J.F.A., D.P.G., M.E. eta A.B. 18-22 urte arteko arrasatearrak, Fiat Tipo markako auto batean zihoazen alkoholemia kontrolean geldiarazi zituztenean. Ertzaintzaren esanetan, urduri jarri ziren ertzainak ikusitakoan eta

zerbait ezkututzen saiatu ziren. Hori zela eta, ertzainek autoa arakatu eta 300 gramoko hatxis zati bat aurkitu zuten. Ondorioz, atxilotu eta gaua komisaldegian igaro ondoren, biharamonean Bergarako gau eta eguneko epaitegira eraman zituzten.

Pasa den maiatzaren 30ean egin zen beste atxiloteta kontuan izanez gero, sei dira ustez drogak saltzeagatik Arrasaten atxilotutako gazteak.

### AURRE EGITEKO LANAK

Ertzaintzak azaldu zuenez, aurtan lan berezia egiten ari dira Deba Garaian, eta Arrasaten bereziki, drogari aurre egiteko.

Hori dela eta, zibilez jantzitako ertzainak droga saltzaileak eta droga kontsumitzaileak biltzen diren ohiko tokiak zaintzen ari dira azken hilabeteotan.

Ertzaintzak drogen aurka egiten dituen ohiko lanak dira hauek.

## Uribarriko Taberna

Uribarri auzoko Gizarte Etxeko taberna ustiatzeko lehiaketa publikoa kaleratu du Arrasateko Udalak. Izena emateko, udaleko Erregistro Orokorreara jo beharko da, abuztuaren 8a baino lehen.

Tabernaren lagapena urtebetekoa izango da, baina beste lau urtez luzatu ahal izango da.

Taberna hartzen duenaren lanak izango dira: tabernan aritzea, garbiketa lanak egitea eta Erretiratuen Etxeko atezaintza zerbitzua eskaintzea. Taberna irekita egon beharko da goizeko 10:00etatik gaueko 22:00ak arte, egunero. Berri gehiago behar duenak udaletxean.

# Loramendi kirolak

Abuztu guztian 09:30etatik 13:00etara ZABALIK.

Umeen  
arropa  
**%30**



# Landa bideak konpontzeko lanean


Bi urteko ikerketaren ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialde honetako baserri edo landa bideei dagokien plan-gintza aurkeztu du.

Honetarako Gipuzkoako baserri bideak zerrendatu egin dira, ostean arautu ahal izateko. Zenbaketaren arabera, Gipuzkoan ia 15 mila kilometro landa bide daude. Horieta-tik 350 km inguru, Arrasaten.

## LEGE HUTSUNEA

Bide horiei dagokienez, lege hutsunea egon da orain arte. Hau da, ez zegoen zehaztuta bide horien ardura nork izan beharko lukeen. Ondorioz, askotan arazoren bat izanez gero, zaila zen erantzukizuna nori zegokion ezartzea auto istripuetan batez ere.

Mota honetako bideak konpontzeko orduan ere arazoak izan dira maiz. Askotan,



Arrasaten 350 bat km. baserri bide daude.

baserritarrak berak izan ohi dira bide horiek konpontzen ibiltzen direnak; bestetan, udalaren esku geratu izan da konponketa.

Sarritan, ez da inolako konponketarik egin eta kitto.

Orain, aldiz, argi eta garbi geratuko da nori dagozkion mota honetako lanak egitea. Zortzi milioi pezeta erabili ditu foru aldundiak ikerketa hau egiten.

Mantenimendurako diru

kopurua nahiko handituko da. Orain arte foru aldundiak 200 milioi pezeta ematen zituen mota honetako bideak konpontzeko. Datorren urtetik aurrera, aldiz, 500 milioi peze-ta emango ditu.

## Hirugarren Munduari laguntzeko Mundukide sortu da

Ekainaren 11n Mundukide izeneko fundazioa sortzeko hitzarmena sinatu zen Arrasaten.

Sortzaileen artean, Deba Garaiko sei Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta MCC.

Mundukide fundazioak Hirugarren Munduarekiko konpromisoa landu nahi du. Oraingoz kooperatibak sartu dira fundazioan, baina antolatzaileek esan dutenez, saiatuko dira beste enpresa

batzuk ere sar daitezten.

Mundukide fundazioak hiru helburu nagusi izango ditu: lehena, herrialde osoen garapena, batez ere elikadura, ura, osasuna eta heziketa lantzeko. Bigarrena, tokian tokiko ekimenak bideratu nahi ditu, enpresagintza erakutsiz eta aholkularitza eskainiz. Eta hirugarrena, komunitate esperientzien elkartrukea.

Legeztatzen den bitarte-

an, Mundukideko kideak ari dira proiektuak aztertzen. Lehen urratsak Afrikan egingo dituzte, Mozambiken zehazkiago.

Mundukide sortu duten Gobernuz Kanpoko Erakundeek lanean segituko dute bakoitza bere herrian. Anelkar Antzuolan, Hiruax Aretxabaletan, Harreman Arrasaten, FISC Bergaran, Atxorrotx Eskoriatzan eta Banoia Oñatin.

## Farmazia aldaketa

Español farmaziak atek itxi ditu, Iturriotz kaleko 17ko etxebizitzan egiten ari diren lanen ondorioz.

Orain Azkoaga botikarioak hartuko du Iturriotzen kokatuko den botika berriaren ardura. Ondorioz, harik eta botika berria ireki arte, Español farmaziari dagozkion gau eta eguneko zerbitzuak Iturriotz kaleko 33an irekiko den Azkoaga botikak beteko ditu.

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



# Kemper-Arrasate, gertuago

Joan den asteburuan bretoien bisita izan genuen. Kemperreko 70 lagun inguru etorri ziren, tartean intelektualak, dantzariak eta musikariak. Ostiralean iluntzean heldu ziren eta larunbat goizean ongi etorria egin zitzairen udaldegian. Ostean kalejira ateratu ziren dantzari eta musikariak bretoiak, Arrasateko erraldoi eta buruhandiekin batera.

Arratsaldean, berriaz, Eus-

kal Herriko eta bereziki Arrasateko kulturari buruzko hitzaldia entzuteko aukera izan zuten. Gauean Euskal Herriko eta Britainiako kulturak nahastu egin ziren Monterroren izandako dantza eta musika jaialdian.

## ELKAR EZAGUTZA

Izan ere, bai Gerra Zibilaren ostean eta baita gaur egun ere, halaberrez ihesean ibili diren

euskaldunek harrera ezin hobea jaso dute beti bretoien-gandik eta horrek eraginda hasi ziren Arrasateko eta Kemperreko hainbat herritarren arteko harremanak.

Orain, harreman horiek sendotzea eta euskaldunon eta bretoien arteko elkar ezagutzaren arazoak dira bisitaren helburuak.

Hurrengoan arrasatearren txanda izango da.



Urtarrilean ere Arrasaten izan ziren.

# Jardunaldiak Mondragon Unibertsitatean

Arrasaten urteotan garatzen ari den kooperatibismoak jende askoren jakinmina piztu du, batez ere azkenaldian. Hemen go kooperatibismoa kapitalismoaren aurrean alternatiba moduan ikusi izan da herrialde askotan. Hori dela eta, Iñá-

zio Irizarrek Mondragon Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetarako zuzendariak Kooperatibismoaren inguruko jardunaldiak antolatzea proposatu zuen.

Kooperatibismoaren baloreak hizpide hartuta, makina

bat hizlari izan da egunotan Eskola Politeknikoan. Eusko Jaurlaritzatik eta Euskal Herriko Kooperatiba Federakuntzatik etorri dira hizlariak eta baita besteak beste, Italiatik, Argentinatik, Britainia Handitik eta Mexikotik ere.

Ikasleak ere munduko makina bat tokitatik etorri dira Arrasatera.

Horrez gain, Eskola Profesionalaren eta Mondragon Unibertsitatearen irakaskuntza metodologiaz ere aritu dira jardunaldietan.



# Loramendi kirolak



**11.450 pta**  
Goretex



**10.995 pta**



**4.995 pta**



**9.995 pta**

**Zure oporretarako material guztia**



**Abuztuan goizez zabalik**



# Lezetxiki: gure arbaso

Lau urtetik hona, udako garai honetan, Garagartza auzoan joan-etorri berezia izaten da. Lezetxikiko kobazuloa da horren eragilea. Euskal historiaurreko aztarna baliotsuak gordetzen ditu bere magalean. 1956an On Joxe

Miel Barandiaranek lehenengo indusketa egin zuen. Orain, Aranzadi elkartearen babesean eta Alvaro Arrizabalaga arkeologoaren gidaritzapean, urtero jende gaztea aritzen da lanean Lezetxikin.

**E**HU, UNED, Deustua eta Mondragon unibertsitateetako ikasleak ditu lankide Alvarok lan hauetarako. Hamar pertsona inguruko taldetxo hau udaro dator hona, gure arbasoen arbasoak nola eta non bizi ziren jakiteko aztarnen bila.

Gazte talde bat ere ondolan izaten dute, 16-18 urteko gazteak auzolanean, inguru haiek sasiz eta bestelakoz garbitzen eta txukuntzen. Eus-

kal Herri osotik borondatez lan egitera datorren gazte taldea dugu hauxe.

## LEZETXIKIREN GARRANTZIA

1965ean On Joxe Miel Barandiaranek eta bere lan taldeak Neanderthal garaiko emakume baten besahezurra eta baita bi hagin ere aurkitu zituzten Lezetxikin. Jakitunek diotenez, orain 120.000 eta 35.000 urte artean bizi izan zen besahezurraren jabea. Euskal Historiaurrearen aztarnarik

garrantzitsuenak dira hauek.

Garagartzako inguru honek duela 100.000 urteko geruza arkeologikoak gordetzen ditu. Alvaroren azalpen arabera, "Zortzi-bederratz bat maila arkeologiko dauke Lezetxikin. Maila bakoitzean gizaki mota desberdinak bizi izan dira. Lezetxikiren kasuan, badakigu egon direla Neanderthalak eta hauen ondorenak, Cro-Magnonak edo gizaki modernoak. Dena den, posible da bi aro hauen aurreko gizakirik ere egon izana.

"Gainera, aro bakoitzeko gizakiak bere ohiturak izan ditu, tresna desberdinak eta inguruan animalia zein landare mota desberdinak zituela. Adibidez, bai Barandiaranek bere indusketan eta baita guk iaz ere, dagoeneko desagertuta dagoen errinozeronte iletsuaren aztarnak aurkitu ditugu hemen, giro glaziarretan bizi izan zena."

Horrengatik guztiagatik, esan genezake Lezetxikiko aztarnategia bai Euskal Herriko zein Espainiako esanguratsuenetako bat dela, kasu honetan Atapuercako aztarnategiarekin batera.

## HAMAR URTEZ ARRASATEN

Neanderthal gizakia 5.000 urteren buruan desagertu zen, baina honen ondorena, Cro-Magnon gizakia ere Lezetxikin izan zen.

Talde txikietan bizi zen



Aurten estalpe berezi bat ezarri dute egurrekin




Barandiaranek 9 m.ko zuloa egin zuen Leibar kobazuloa aurkitzeko.

orduan gizakia. Sei, zazpi edo zortzi, edo gehienez jota hamalau pertsona ibiltzen ziren talde bakoitzean, Lezetxikikoan kasu. Nomadak ziren eta ehizaren arabera aldatzen zuten bizilekua.

Leku bakoitzean bi edo hiru astez izaten omen ziren.



# den sustrai bila



arekin lanean egin ahal izateko.

Egin beharrekoa egin eta berri-  
ro ere trasteak jaso eta beste  
kobazulo batera joaten ziren.  
"100.000 urte horietan zehar  
batuz gero zenbat egunez izan  
ziren gizakiak hemen bizi-  
tzen, pentsa genezake segu-  
ruenik ez direla hamar urte bai-  
no gehiago izango."

## ARRASATEKO UDALA, BIKAIN

Baina hamar urte horietan  
utzitako aztarnak ezinbeste-  
koak izan daitezke gure arba-  
soen arbasoak nola bizi eta  
desagertu ziren jaiteko, batez  
ere kontuan izanda Euskal  
Herrian eta baita Espainian ere  
horrelako beste aztarnategi  
bat dagoela soilik, oraingoz  
behintzat.

Zorionez, Arrasateko Uda-  
la ere konturatu zen honen  
garrantziaz eta pistatik erre-  
kara arteko lur zatia erosita eta  
hesi batekin babestuta dauka.  
Honetaz gain, egurrezko sei-  
naleak ere erosi ditu inguru  
haiek ondo seinalaturik egon  
daitezten.

Modu honetan han egiten  
ari diren lanak lasai egin ditza-  
kete, inork hondatuko dituen  
beldurrik barik. Izan ere, aztar-  
nategiak eraso ugari jaso izan  
ditu, "oso kalte handiak izan  
ziren, adibidez, inguru hau  
pinudia izan zenean edo jen-

dea ezkutuan guk eginikoa  
aitzurrekin hondatzera etorri  
zenean. Horrengatik, Arrasa-  
teko Udalak aipamen berezia  
merezi du. Kontu honekin  
sekulako sentiberatasuna era-  
kutsi du. Benetan azpimarra-  
garria da, gainera. Izan ere,  
portaera nahiko aparta da, gai  
honekiko duen erantzukizu-  
netatik harantzago joan da  
Arrasateko Udala".

## ETORKIZUN OPAROA

Oraindik lan asko dago egi-  
teko Lezetxikin. Alvaroren  
hitzetan, erdia baino gehiago  
egitear dago oraindik.

Aurten, kasu, aurreneko  
bost egunetan suharri zati txi-  
kiak aurkitu izan dituzte. Suha-  
rriaren bitartez tresnak egiten  
ziren orduan eta tresnen ara-  
bera, nola bizi edo nola lan egi-  
ten zuten jakin genezake. ■

Ubane Madera



## LANA MUSU TRUK

Bai Alvaro Arrizabalagak  
bai unibertsitario taldeak  
zein auzolandegiko gazte-  
ek debozioz egiten duten  
lan. "Begira Atapuercako  
aztarnategia. Hura mun-  
duko aztarnategirik garran-  
tzitsuenetakoa da. Hala ere,  
han lan egiten duen jende-  
ak ere, bestelako ogibide-  
ak ditu. Uda partean hila-  
bete hartzen dute induske-  
tan lan egiteko, baina horre-  
gatik ez dute tutik ere  
kobratzen. Lortzen duten  
diru guztia, indusketan  
inbertitzen da."

## LEZETXIKIREN HISTORIA KRONOLOGIKOA

**1927:** Jauregi berri arrasatearrak aurkitu  
zituen lehen aztarnak. Aranzadi  
elkartea, On Joxe Miel Barandiaran-  
en bitartez, han lan egiteko asmo-  
ekin hasi zen.

**1936:** Gerra Zibilak eten egin zituen Leze-  
txikirako egitasmoak.

**1956:** On Joxe Miel Barandiaran eta bere  
lan taldea Lezetxikin hasi zen indus-  
keta lanetan.

**1965:** Neanderthal aroko emakume baten

besahezurra aurkitu zen; gainera,  
bederatzi metro barrura egiten, "Lei-  
bar" izeneko kobazuloa ere agertu  
zen, gizaldietan lur azpian ezkuta-  
tuta egon zena.

**1968:** On Joxe Mielek bukatu egin zituen  
aztarnategiko lanak.

**1995:** Aranzadiren babesean, berriro ere  
indusketa lanak hasi ziren, Alvaro  
Arrizabalaga arkeologo oñatiarraren  
zuzendaritzapean.




# Amuebladora Mondragonesa: 44 urteko historia

Margolari bezala sekulako etorkizuna zuenean (Bay-Sala margolari ospetsuaren ikaslea zen eta 16 urterekin margolaritzatik bizi zen), pintzelak utzi eta Arrasatera etorri zen Urduñatik Rafa Fernandez Zubiaga, alargundu berria zen amandareari laguntzera.

Hark altzari denda bat zekukan Maala kalean, gaur egungo Zubiaga bitxidendan. Rafak hartu zuen dendaren ardura. Hiruzpalau urteren ostean, trinketea alokatu zuen (gaur egun Okendo Kirolak dagoen lekuan) eta hantxe ezarri zuen garai hartako "Galerias la Amuebladora Mondragonesa". Altzariak eta sukaldeko tresneria saltzen zuen orduan.

Majo kostata —Maala kaleko denda birritan erre zitzaion—, zabalkundeari ekin zion. Garibai kalean lehenengo, San Andresen eta Santamainan gero. Arrasate eta inguruko herri industrialduak hazten ari ziren urteak ziren eta Rafak dendak ireki zituen Ermuan, Arrigorriagan eta baita Gasteizen ere. Denboraz, itxi egin behar izan zituen hauek, ez zen guztietara iristen eta.

Garibaiko denda erosi zutenean, estrategia aldatu eta altzarietan zentratu ziren. Handik gutxira, Rafaren seme-alabak hasi ziren lanean familiaren negozioan. Aitak aukera eman zion Fernandori, artean Apainketa ikasten Gasteizen, Zerkaostetako denda



Amrosio Agirrezabalaga eta Fernando Fernandez.

kudeatzeko. Emaiza onak ikusirik, aitak Garibai kaleko dendaren ardura eman zion. Hori aprobetxaturik, semeak erabat aldatu zuen denda: itxura eta irudi korporatiboa. Goi mailako altzariak saltzeko denda bihurtu zuen.

Fernando sartu ondoren Amaia eta Elena ere sartu ziren. Harrezkero, enpresa eremu

desberdinetan zabalduz joan da. Lehenengo a, eme..interiores etorri zen; gero Okendo Kirolak; ondoren Zubiaga bitxidenda, Musakolako Centro Hogar delakoa, Oñatiko Zubiaga bitxidenda eta Maala kaleko Benetton denda.

Altzarietako dagokienez, 4.000 metro koadroko erakustokiak dituzte. "Inoiz bai-

no leku zabalagoa eta zerbitzu gehiago eskaintzen ditugu", esaten du Fernandok. "Orain ez da hasieran bezala. Gaur egun dena neurritara doa, jendea askoz ere sofistikatua da eta gu haien premiara moldatzen gara".

Deba Garaian saltzen dute gehien. "Arrasaten liderrak gara", dio Fernandok, "baina 100 kilometroren bueltan egiten dugu lan".

Gauzak ondo doazela ikusita, Rafa gero eta gutxiago agertzen da negozioan. Hiru urte darama jo eta ke margoitzen, betidanik maitatu izan duena egiten. Hogeita hamar urte margotu barik izan ostean, galdutako denbora berreskuratu nahian dabil.


Negozioa esku onetan dago, jakina.

## a, eme..interiores

- Rafael Fernandez Zubiaga.....Kudeatzailea
- Fernando Fernandez .....Merkataritza zuzendaria
- Amaia Fernandez .....Finantza zuzendaria
- Ambrosio Agirrezabalaga .....Garibaiko denda arduraduna
- Mikel Erostarbe .....Musakolako denda arduraduna

### ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

Logopedia eta psikologia  
tratamendu kliniko eta  
hezitzaileak haur eta  
helduentzat.

Erdiko kale, 37 - behea  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

### URRATS AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE



# Santamaina / 33. barrutia



Obenerreka jolastokia iaz inauguratu zuten.

Asteburu honetan Santamaina auzoko jaiak direla eta, aprobeixatu egingo dugu aukera auzoa hobeto ezagutzeko. Horretarako, auzo alkatearekin izan gara berbetan: Matilde Martinek, alegia. Laugarren urtea du alkatetzan, baina iraila-urria aldean seguruenik, utzi egingo du bere kargua, zinegotzi izateko. 33. barrutia ere esaten zaio auzo horri eta Makatzena, Obenerreka, Santamaina, San Esteban del Puerto, Agerre, Galizia, Hondarribia eta Santa Teresa kaleak batzen ditu. Santamaina auzoan 1.200 etxebizitza daude eta 2.700 bizilagun inguru ditu.

Baserririk gabeko auzogunea da eta 1960. urtetik aurrera izan zuen garapen nagusia; Makatzenako, Obenerrekako eta Santamainako alde berriko etxebizitza

gehienak orduan eraiki ziren.

## ZERBITZU NAGUSIAK

Arrasateko Familia Heziketarako Zentroa Santamainan dago. Honetaz gain, bizilagunentzako ludoteka bat, liburutegia eta Toki Argi izeneko erretiratuen etxea daude. Manu Uriarte da hango presidentea. Era beran, iaz arte Gaztetxokoa ere bazen auzoan, baina itxi egin zen. La Merced eskola ere auzo honetan dago.

## URTE OPAROA

1997. urtea benetan oparoa izan zen Santamaina auzoarentzat. Bi urtean Makatzenako pilotalekua, Obenerrekako jolastokia eta San Esteban kaleko ur eroanbidea eta espaloia egin dira. Gainera, Agerre plazako lanak ere hasita daude. Hala ere, leku guztietan moduan, badu gabeziaren bat edo beste.

## GABEZIAK

• **Makatzena auzoa:** arazo handia omen dago auzoan Makatzena kalearekin. Antza denez, oso egoera kaskarrean dago, arriskutsua zenbait lekutan eta berehalako konponketa zenbait beharrean. Baina horretarako ahalegintan ibili arren, konpondu beha-

rreko zatia ez da udalarena eta haren jabeak ez du saldu nahi. Hori dela eta, oraindik ezin izan da ezer egin.

• **Aparkalekuak:** premia handia omen dago.

• **Galizia kalea:** hango pase-abidea ere konpondu behar litzateke.

• **Berdegunak:** urriak.

## Jaien egitaraua

Gaur hasi dira auzoko jaiak xake eta mahaiko tenis txapelketekin. Gauean, "Bumeran" orkestra izango da egunari amaiera ematen. Aipatu, bestalde, Toki Argin eskulanen erakusketa izango da asteburu osoan zehar.

## LARUNBATA

**10:00** Diana, buruhandiak eta "Bolo-Palama" txapelketa.

**11:00** Umeentzako jolasak Makatzenako pistan.

**11:30** Pilota finalak Makatzena frontoian.

**13:00** Erretiratuen omenezko meza "Merced"en. Ondoren, bazkaria.

**17:00** Pilota partidak Obenerreka frontoian.

**17:30** Umeentzako jolasak Santa Teresan.

**18:30** Moto Txikiak Santa Teresan.

**23:00** Dantzaldia "Carisma" taldearekin.

## IGANDEA

**10:00** Diana, buruhandiak eta "Bolo-Palama" txapelketa.

**11:00-14:00** haurrentzako jolastokia.

**11:30** Jaialdi herrikoia Mentu plazan.

**12:00** Meza nagusia "Merced"en eta dastaketa herrikoia Agerre plazan. Fanfarrea kalez-kale arituko da.

**16:00** Umeentzako jolasak.

**16:30** Mus txapelketa Fronton tabernan (izen ematea ordu erdi lehenagora arte zabalik egongo da).

**18:30** Txaranga.

**19:00** Antzerkia Mentu plazan.

**22:00** Dantzaldia "Carisma" taldearekin.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



Ingurune zoragarrian  
lagun artean  
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI  
Tel.: 943 78 35 26



## UGARTE

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412





## ZAINDARIA ZAINDUZ

San Kristobal zaindariaren eguna zela eta, asteburuan makina bat ospakizun izan zen inguruotan. Batetik, goizean San Viatorren meza berezia entzun zuten 40 bat kamioilarik, San Kristo-

bal aldean zutela. Ostean, Zigorrolan 22 kamioi elkartu ziren zaindariaren bedeinkapena jasotzeko.

Eta bestetik, Aramaioko San Kristobal ermitara jende nahikotxo

gerturatu zen. Han, urtero moduan, belarriko mina sendatzen omen duen olioia bedeinkatu zuen apaizak. Meza ostekoak ere giro alaian ospatu zituzten.



Argazkia: Zapping argazki bideoa

## ONGI IZAN!

Abel eta Yoli maiatzaren 8an ezkondu ziren Arantzazun. Argazkiak Monterronen atera zituzten, ohi moduan, ezkondu baino lehen. Tenerife aldean izan ziren ezkontza osteko egun goxo horiek pasatzen.



### LAN ESKAINTZA



*San Frantzisko Xabier ikastolak  
DBHko irakaslea behar du  
1999 - 2000 ikasturte osorako*

- **Baldintzak:**  
Matematikan edo fisikan lizentziaduna edo goi mailako ingeniaria izatea.
- **Curriculumak bidaltzeko epea:**  
uztailak 22, osteguna.

Curriculumak San Frantzisko Xabier Ikastolara bidali (Otalora Lizentziatua, 8, 114 posta-kutxatila) edo Ferixalekura ekarri goizeko 09:00etatik 13:00etara.





## ZEELANDA BERRITIK ARRASATERA

Asteartean Zeelanda Berriko bikote maori bat izan genuen Arrasaten, euskararen berreskuratzea aztertzen. Uda-

letxean, AEDn eta ARKOn izan ziren. Izan ere, Penny Poutu eta Toni Waho irakasleak dira eta beren hizkuntza

berreskuratzeko ahaleginetan dabil-tza. Helburu horrekin makina bat eskola sortu dituzte Zeelanda Berrian.



## AGUR, AGUR!

Pasa den ostegunean egin zuten ikasturte amaierako jaiak Umezaintzako neska-mutikoei. Gonbidatu bereziak izan zituzten, gainera. Izan ere, haurtxoez gain, hantxe izan ziren gurasoak eta aiton-amonak, sekulako askaria egiten.

## EZ DAGO AITZAKIARIK

Dantza egin nahi duenak ez du geldi egoteko aitzakiarik. Halaxe erakutsi zuten Natalio Maiztegi eta Esther Amores dantza irakasleek pasa den ostegunean. Abaroara joan eta hango bizilagunei gurpildun aulkiekin dantza egitea posible izateaz gain, benetan dibertigarria dela erakutsi zieten. Beraz, ez dago aitzakiarik, aizue!



# iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate bihurtzen diren ilusioak

FAGOR

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42



## Arrasatearrak txapeldun



Gregorio Palaciosek entrenatzen dituen arrasatearrak izan dira nagusi Gasteizen jokatu den Gasteiz Cup Europako kopa futbol amateur txapelketan. Joma Arkupe taldeko alebinak txapeldunak izan

ziren, Alacanteko Axpe taldea 4 eta 0 gailendu ostean. Benjaminak ordea, bosgarren sailkatu ziren.

Euskal taldeekin batera Alicante eta Argentinako taldeak ere aritu dira.

## ESQUASH Txapelketak




Joan den asteburuan Deba Garaiko squash txapelketako finala jokatu zen Musakolako kiroldegian. 16 jokalarik hartu zuten parte bi hilabetez luzatu den txapelketa honetan. Jose Gorosabelek eta Gorka Madinabeitiak jokatu zuten lehenengo final erdia. 3 eta 2 irabazi zuen Gorosabelek. Bigarren final erdian 3 eta 0 gailendu zuen Garikoitz Ibarzabalek Javi Moreno. Finalean, berriz, Gorosabel nagusitu zen, nahiz eta lehenengo bi setak Ibarzabalek lortu zituen.

Bestalde, ekaineko azkenengo asteburuan, Euskal

Herriko squash txapelketa jokatu zen Arrasaten. 32 jokalarik aritu ziren txapelketan eta guztira 18 partida jokatu zituzten. Eduardo Gallastegik eta Ricardo Arrienek kontsolazio finala jokatu zuten eta Arrien nagusitu zen. 3. eta 4. tokiak Ricardo Ezpeitiak eta Iñaki Sierrak jokatu zituzten, Ezpeitia nagusituz. Finala, berriz, Alai taldeko Andoni Llosak eta Benedictako Aitor Yanguasek jokatu zuten. Txapela Yanguasek lortu zuen.

Arrasateko jokalariei dago kienez, AKE-Esquah taldeko Javi Moreno kontsolazio final erdietara iritsi zen eta JA Varillak txapelketako garaipen bat lortu ostean Euskal Herriko sailkapen nagusiko 42. tokiar igotzea lortu zuen.

## Oñatin ere Oriako nagusi



Ordiziara joango dira bigarren urteko JMAko haurrak.

Beroak haur mailako txirrindulari lasterketa zaildu zuen joan den asteburuan Oñatin. JMA taldeko bigarren urteko haur mailakoek ere hartu zuten parte han. Triana auzoko jaiak zirela eta, antolatu zen lasterketa. 74 txirrindularik hartu zuen parte, baina helmugara 33 baino ez ziren iritsi. Beroa eta Kanpanzar eta Udanako mendeak izan ziren errudunak.

Angel Etxedona Oriako Txirrindulari Elkarteakoa izan zen txapelduna. Azken metroetan erabaki zen saria, bost txirrindulariren arteko esprintean. Mendiko saria Daniel Ferreirok lortu zuen. Lehenengo oñatiarraren saria Xabier Altubek. Arrasatekoek ez zuten zorte handirik izan. JMAko bost txirrindularik hartu zuten parte lasterketan, eta bi sailkatu ziren.

## TXIRRINDULARITZA Zorte txarra



Olarra taldea izan zen nagusi Antzuola sariaren 54. aldian. Igan-dean jokatu zen eta Born Jay taldekoak ere han izan ziren. Sei txirrindulari irten ziren, baina lau baino ez ziren helmugaratu. Ruben Gonzalez 21., Jon del Rio 23. eta David Sojo 30 izan ziren.

Antonio Urmeneta, berriz, nahiko atzean helmugaratu zen.

Lasterketan 160 afizionatuk hartu zuten parte, baina 98 helmugaratu ziren. Olarra taldeko Iñigo Urretxua izan zen irabazlea eta berak lortu zuen gainera mendiko saria ere.

Larunbatean, bestalde, Lesakan izan ziren Born Jayko bost txirrindulari. Oskar Askasibar erori egin zen eta zauri bat josi egin behar izan zioten besoan. Antonio Urmeneta ere erori egin zen ihes eginda zihoala. Jabier Miguel, berriz, 13. helmugaratu zen.

Igande honetan beste bi lasterketa izango dituzte Born Jay taldekoek. Urdiainen eta Elgetan arituko dira igandean. Larunbatean, berriz, Durangora abiatuko dira.

Asteburu honetan aurten-go 20. irteera izango dute Arrasateko zikloturistek. Araba aldera joko dute. Irteera Arrasate-Arlaban-Gasteiz-Aretxabaleta-Gasteiz gaina-Treviño-Zaldiaran gaina-Gasteiz-Landa-Arrasate.



# Eskuz binakako hiru txapelketa asteburuan

Makatzena, Aretxabaleta eta Gatzagako txapelketak jokatuko dituzte herriko pilotariek asteburu honetan. Ostiral arratsaldean, esaterako, Makatzenan arituko dira banjamin, infantil eta junior mailako bikoteak. Benjaminetan Elortza-Arregi neurtuko dira Fernandez-Arregiren aurka. Infantiletan Jimenez anaiak Agirre-Gozaloren aurka neurtuko dira. Juniorretan, berriz, Lazkano-Dominguezek eta Uribarren-Belategik jokatuko dute. Norgehiagokak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira.

Larunbatean, goizeko 10:00etatik aurrera, Aretxabaletako eskuz binakako txapelketan arituko dira pilotariak. Infantiletan Abasolo-Gozalo, Axpe-Elorrio eta Zuazua-Agirre arituko dira Arrasate ordezkaten. Junio-



Ostirlean, larunbatean eta igandean partidak jokatuko dira.

retan, berriz, Lazkano eta Belategi.

Azkenik, igandean, Gatzagako txapelketa jokatuko dute. Goizeko 09:30ean hasiko dira. Izan ere, bederatzi norgehiagoka jokatuko dira, tartean Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, Gasteiz eta Itziarko bikoteekin.

Arrasatek 14 urtekoetan, Abarrategi-Errarte lehiatuko dira eskoriatzarren aurka Axpe-Elorrio eta Abasolo-Gozalo eta Zuazua-Agirre bikoteek euren artean jokatuko dute. 16 urtekoetan Uribarren eta Dominguez Bergarako Herran eta Larrañagaren aurka arituko dira eta Urkia eta Jimenez I, berriz, Itziarko Astiagarako eta Azkoaga bikotearen aurka. Juniorretan, bestalde, Lazkano-Belategik, Gasteizko bikote bat izango dute aurrez aurre.

## Mondraren batzar orokorra

Mondraren futbol taldeak hasi dira dagoeneko 1999-2000 denboraldirako prestatzen. Bere zuzendaritza batzordeak asteartean batzar orokorra egin zuen. Hurrengo denboraldirako 14 milioiko aurrekontua izango du Mondrak eta berriz ere zazpi talde zelairatuko ditu. Asmo nagusien artean, galdutako mailak berreskuratzea eta lortutakoei eustea leudeke.

Baina horretarako eta Jose Luis Ezkurra, Mondrako lehendakariak batzarrean adierazi bezala, "ez da fitxaketarik egingo. Harrobiko joakieriez baliatuko da talde nagusia. Bestela zertan gabilta gazte eta haur mailako taldeekin?"

Iaz Mondrak 600.000 pta.ko soberakina izan zuen.

Hori dela eta, beste gauza batzuen artean kirol materiala berrizteko asmoa daukate. Horrez gain, eta talde nagusiak maila berreskuratzea lortuko balu, diru saria bi milioikoa litzateke. Dena dela, kontuan izan behar da bazkideen kuotak 350.000 pta.n jaitsi direla. Gauzak horrela, talde guztien babesleak aurkitzeko saiakera egingo du Mondrak.

### SARI BEREZIA

Iazko denboraldia txarra izan zela azpimarratu nahi izan zuen lehendakariak, talde nagusiari dagokionez. Baina aldi berean "Kiroltasunaren saria" irabazi dutela aipatu zuen. "Orain arte, epaileen aldetik jaso duten tratamendua onena ez bada izan", badirudi jokalariek fin



14 milioiko aurrekontua izango du hurrengo denboraldian.

ibili direla futbol zelaietan.

Horrez gain, Iker Lazpiur haur mailako jokalariren fitxaketa aipatu zen. Lazpiur Errealean arituko da hurrengo denboraldian.

### DENBORALDI HASIERA

Irailaren 5ean edo 6an hasiko da denboraldia, baina

aurreko asteburuan Arrasate Hiria Saria jokatuko dute Bergara, UDA eta Arrasateko talde nagusiek.

Hurrengo denboraldian ere zazpi talde arituko dira futboleko. Helburu nagusia galdutako mailak berreskuratzea eta lortutakoei eustea dela azpimarratu zuten.



## JABIER RETEGI (MU-KO ERREKTOREA)

# “Eskolak gizartearen

Bergarako Eskola Profesionalean ikasi eta 17 urterekin Bergarako Cerrajeran elektrizista hasi eta laminazioko arduradun izatera iritsi zen. Bi urte geroago ingeniari tekniko ikasten hasi Arrasaten eta 1974an Eskolako zuzendari izendatu zuten. Hezibideko zuzendari ere izan zen. 1979an Hezkuntza sailburuorde izendatu zuten. 1982an Lan Kide Aurrezkira itzuli zen, enpresa saileko buru. LKS abian jarri ondoren SPRIko zuzendari izendatu zuten. Gero Industria Sailburuordetzara pasatu zen. 1995ean Indutria, Nekazari-tza eta Arrantza sailburu izendatu zuten. Gaur egun, 62 urte ditu, MCCko Garapen Teknologiko eta Kalitateko zuzendaria eta MUko errektorea.

— Zer eman dizu ibilbide horrek?

— Esperientzia handia eta

asko ikastea. Jende asko eza-gutu dut, batez ere industria arloan. Politikak, bestalde, bere nortasuna dauka. Ez da nik maitate dudan giroa, baina esperientzia bezala oso ondo dator.

— On Jose Maria Arizmendiarrietak deitu zizunean, zenbat urte zenituen?

— 25 bat urte nituen. Ikasle nintzenetik harreman handia izan nuen berarekin, konfiantza handia. Eskolak nire premia zuela esan zidan. Astebeteren bueltan hartu nuen erabakia. Urtebete geroago zuzendari izendatu ninduten. Niretzat ideologo eta maisu izan zen, baina laguna ere bai. Hainbat esperientzia bizi izan genituen elkarrekin. Esaterako, lehenengo bihotzekoa izan zuenean nirekin zegoen, Madrilan.

— Zelan aldatu da eskolan urte hauetan?

— Garapeneko proiektu iraunkorra izan da. 1968an Ingeniaritza Teknikoa jarri genuen. 1973an Unibertsitate Eskola, ETEO eta Irakasle Eskola ere hasi genituen. Geroago Ikerlan sortu zen, bai eta Alecopere. Ignacio Lakuntzak lan handia egin du azkenengo urteetan. On Jose Mariak zioen eskolak gizartearen oinarri izan behar zuela eta hori izaten segitu behar du. Gaur egun goi mai-

lako unibertsitatea behar da.

— Nola ikusten duzu Mondragon Unibertsitatea?

— Ardura handiarekin. Unibertsitatea gizartearen tresna oso garrantzitsua delako, baina itxaropen handiarekin.

— Nora eraman nahi duzu MU?

— Unibertsitate oso indartsua eratuzera.



**“Unibertsitate campus-teknologia gune bat eratu beharko genuke enpresen eta unibertsitatearen ikerkuntza lanak lotzeko”**



# “Oinarri izan behar du”

Ez da unibertsitate oso handia izango. 5.000 ikaslerekin (gaur 2.600 ditu). Enpresari begira egongo da, baina baita ere hezkuntza proiektuari. Sare baten bitartez lotu behar dira unibertsitatea eta enpresa: ikerkuntza edo aholkularitza enprekin. Bere gain hartu behar ditu enpresa proiektu aurrerakoienak.

**— Lotura era guztietako enprekin?**

— Bai. Inguruan kooperatibak dira nagusi, baina unibertsitate irekia dago gizar-te guztiari. Ezin da mugatuta

gelditu. Beste bailarekin ere loturak bultzatu behar ditugu.

**— Zein ondorio izan litza-ke horrek herrian?**

— Bailara honek aberastasan handia du eta etorkizunean munduan lehiakorrek izango diren enpresak sortu behar ditu. Ezaguera tekniko sartu behar da. Unibertsitate campus-teknologia gune bat eratu beharko genuke enpresa eta unibertsitatearen ikerkuntza lanak lotzeko.

**— Badu bailarak azpiegiturarik hori egiteko?**

— Ez du azpiegitura handirik. Nahiko bakartuta dago. Beharrezkoak ditu errepideak: Eibar-Gasteiz eta Beasain-Durango, adibidez. Lursail asko ez daukagu, baina mendi alderantz joz gero, posible litzateke gauzak egitea.

**— Zergatik errektoretza Monterroneara?**

— Campusean egon beharko litzateke, baina zortzi edo hamar urte beharko dira hori egiteko. Bitartean, Monterron da leku aproposa. Dena dela, urte eta erdi bat beharko du libre gelditzeko.

**— Bailara eta Euskal Herria prest daude testuinguru horretan sartzeko?**

— Bai. Euskal enpresak asko aurreratu dira, baina arazoa neurria da, enpresen neurria. Oso txikiak dira eta kanpoko korporazioak hemengo enpresa txikiak erosten ari dira. Hori arazo handia da.

Hori konpontzeko, Euskal Herrian MCC bezalako bost bat korporazio baleude... Hori da Euskadiren erroka. Horretan ere lanean ari gara. Zaila da, hala ere, gure enpresak ohituta daude eta, bakarrik lan egitera.



## Tour Lehiaketa Mundiala

Lizarralde Kirolak-ek ematen duen mendi bizikleta hau irabazi nahi baduzu, azkar ibili!!

Tour-eko lehenengo hiru sailkatuak eta mendiko sailkapeneko irabazlea zeintzuk izango diren badakizu, beheko kupoi hau bete eta uztailearen 23a baino lehen *Arrasate Press*-era bidali (Otalora Lizentziatua, 31).

Irabazlearen izen-abizenak uztailearen 26an jakinaraziko ditugu *Arrasate Telebistan*. Adi egon!!

**Datu pertsonalak:**

Izen-abizenak: .....

.....

Telefona: .....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

## Tour Lehiaketa

**Sailkapen orokorreko lehen hirurak:**

1.- .....

2.- .....

3.- .....

**Mendiko irabazlea:**

1.- .....



# Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa

Arrasateko AED elkarteak Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa antolatu du. Lehiaketa hau itzulpengintza sustatzeko asmoz egiten da, eta aurten XIII. aldia izango du.

Lehiaketan edozeinek hartu ahal izango du parte, eta gaia librea izango dute partehartzaileek. Hizkuntza ere, gaia bezalatsu, libre izango da. Hots, munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkeztu ahal izango dira. Horretaz gain, itzuli nahi den testuaren lehen argitalpenak 1996 eta 1999 urteen artean argitaratua izan behar du, eta itzulpen lana orijinala eta inoiz argitaratu gabea izango da. Testuaren luzera ere baldintzatu dute lehiaketa honetako

antolatzailleek, eta 15 eta 30 orrialde artekoa izango da. Lanak hiru kopiatan, tarte bikoitzez eta orrialde batetik makinaz edo ordenagailuz idatzita aurkeztuko dira, eta jatorrizko testua ere erantsi egingo zaie itzulpen lanei.

## LELOA

Itzulitako lanak lelo batez sinatuko dira. Kartazal itxi batean, berriz, egilearen datuak, telefonoa eta leloa zein diren zehaztuko dira.


Lanak aurkezteko azken eguna 1999ko urriaren 29a izango da, ondorengo helbidetan: AED Elkarte, "Jokin Zaitegi" sariketa, Pablo Uranga 4 behea, 20500 Arrasate.

Epaimahaia AED Elkarte-

ak izendatutako zenbait adituk osatuko dute, eta epaimahaikideek itzulpenaren zuzentasuna, euskararen dotoretasuna, gaiaren gaurkotasuna eta puntakotasuna, etorkizunerako balioa eta testuaren interesa eta erabilgarritasuna hartuko dituzte kontuan lanak baloratzerakoan.

Finalisten zerrenda abenduaren 9rako jakinaraziko da, eta sari banaketa abenduaren 16an izango da, Santamasetako ekitaldien barne.

Irabazleak 200.000 pezetako saria eskuratuko du. Bigarren sarituak, berriz, 100.000 pezeta poltsikoratuko ditu. Dena den, epaimahaia hala erabakiz gero, saria hutsik ere gelditi liteke.



Jokin Zaitegi.

## Baietz barrez lehertu!



Filmako bi izar nagusiak.

Alex de la Iglesia zuzendutako *Muertos de risa* filma izango da ikusgai datorren ostegunean Monterron parkean. Emanaldia gaueko 22:30ean izango da, eta sarrera 450 pezeta ordaindu beharko da. Gazte txartela izanez gero, berriz, 400 pezeta.

70. hamarkadan girotutako filma da, eta Nino eta Bruno dira protagonista nagusiak. Umorea lantzen du bikote honek, showmanak baitira. Bikote honen arteko adiskidetasuna elkarrenganako inbidia eta gorroto bihurtzen da, ordea, eta azkenean elkarrengandik banatu eta bakoitzak bere bidea hartzea erabakitzen dute. Bikotearen ordezkariak dienez, bikoteak bere umore eta antzezlanen bidez lortutako arrakasta itzelak zoramenera eraman ditu biak.

Santiago Segura, "El Gran Wyoming", Ramon Barea eta Alex Angulo dira film honetako aktoreetarikoz batzuk. Umorezko filma, beraz, baina gai serioak ukitzen dituena. Izan ere, umorea oso gauza serioa baita gure artean.

## Bideo ikastaroa Bergaran

Bergarako Islada bideo lantegiak bideo ikastaroa antolatu du, irailaren 20tik azaroaren 4ra bitartean. Ikastaroa astelehen, astearte eta ostegunetan izango da, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Guztira 60 ordu iraungo du ikastaroak.

Kamera, argiztapena, soinua, irudiaren estruktura formala, grabaketaren prozesua, magnetoskopioa, "VM-studio" editorea eta ikus-entzuzko hizkuntza dira landuko diren gaiak.

## TOKI MUGATUAK

Matrikulari dagokionez, 16.000 pezeta ordaindu beharko dute ikastaroan parte hartu nahi dutenek. Langabetuentzako 8.000 pezetakoa izango da ordaindu beharreko zenbatekoa.

Ikastaro honek plaza mugatuak izango ditu, zazpi lagunek bakarrik hartu ahal izango baitu parte ikastaroan.

Izena eman nahi duenak Bergarako Errotalde jauregira jo beharko du edo (943) 779158 telefonora deitu.

Egunkaria

### Lan Baldintzak:

- Goizero 2 ordu (06:30 - 08:30)
  - Astean sei egun (asteartetik igandera)
  - Ezinbestekoa da autoa edo motorra edukitzea
- 943 30 02 22 telefonora deitu

Banatzailea  
behar da  
Arrasaten



NEREA MAKAZAGA (URRUZUNO LEHIAKETAN SARITUA)

## “Ez nuke etorkizunean bizibidez idazle izan nahi”

Nerea Makazaga 17 urteko arrasatearra oraintsu bueltatu da Nice-tik. Astebete pasa du han, “Comment la France et L’Espagne peuvent-elles aider a construire l’Europe du XXIe siecle” lanarekin Frantziako enbaxadaren sari nazionala jaso ondoren. Irailean, Suitzara joango da astebeterako, “Kolorezko bideak” poesiarekin saria eskuratu baitu Urruzuno lehiaketan. Bere burua ez du poeta moduan ikusten, ordea.



gustatzen. Irakurri ere, nahiago dut euskaraz irakurri.

— Zer adierazi nahi izan duzu “Kolorezko bideak” lanean?

— Bizitzan pertsona bakoitzak har ditzakeen bideez dihardu. Hainbat bide daude aukeragai, eta bide bakoitzak bere alde on eta oztopoak ditu.

— Urruzuno lehiaketan iaz ere saria eskuratu zenuen.

— Hori zorzea da.

— Frantziako enbaxadaren lana, zeri buruzkoa izan da?

— Europako Batasunari estatuek eskaini diezaioketenari buruzkoa. Europako Batasuna zergatik sortu zen aztertu dut, zein helburu zituen hasieran... Ikuspuntu ekonomiko, kultural eta politikotik uztartu ditut.

— Urruzuno sariak edo Frantziako enbaxadarenak poz handiagoa?

— Urruzunorenak. Suitzara joango gara hamar egun pasatzera. Iaz oso jende jatorra ezagutu nuen. Giroa paregabea izan zen. Nicen ere oso ongi pasatu dut, Frantziako enbaxadaren sariarekin.

— Poesia beste hizkuntzaren batean idaztera animatuko zara?

— Euskaraz besterik ez dut idazten. Gaztelaniaz ez zait horrenbeste

— Zein gai jorratzen dituzu?

— Maitasun gaiak ez ditut askotan erabiltzen. Gehiago kostatzen zait, niretzat gordetzen ditudalako edo.

— Zein duzu poetarik gustukoena?

— Harkaitz Kano, Pako Aristi, Joseba Sarrionandia... Liburuen artean, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*.

— Maiz idazten duzu?

— Noizean behin idazten dut. Gaia dudanean, orduan bai, orduan idazten dut. Lehiaketetan ere ez dut askotan parte hartu. Urruzunora birritan bidali ditut idazlanak, AEDren literatura lehiaketara beste behin eta institutuko beste lehiaketa batera beste behin.

— Etorkizunean gustatuko litzazuke idaztea?

— Idaztea bai, eta aldizkariren batean idazlanak argitaratzea ere bai. Bizibidez idazle izatea, ordea, ez litzaidake gustatuko.

## aste gazte

### ■ UDAKO OPORRALDIAK

• Uda partean komeni da dokumentazioa eta seguruak aldean edukitzea. Gazte edo ikasle txartela eta kanpista edo aterpetxe txartela edukiz gero, abantailak izan ditzakezue. Behar den dokumentazioa eta non aterra daitekeen jakiteko, pasa zaitetz Gazte Bulegotik.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Administrazio Publikoaren inguruan heziketa eta ikerketarako bekak, zuzenbidea, zientzia politikoak, soziologia, pedagogia, psikologia, filologia eta goi mailako ingeniartzan lizentziadunentzat. Epea: abuztuak 9.

• Gipuzkoako Agiritegi Orokorak Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko bi beka eskuratzeko deialdia egin du. Azken lau urteotan unibertsitateko goi titulua lortu dutenei zuzendua. Epea: irailak 1.

### ■ LANA

• Suhiltzaileak behar dira lan poltsa osatzeko, aldi baterako lanak betetzeko. Epea: uztailak 19.

• Etxeberriako Udalak administrazio laguntzailea eta liburutegi laguntzailea behar ditu. Epea: uztailak 20.

• Disneyland Parisen lan egiteko eskaintza jaso dugu; garbiketara, harrera, salmenta eta atrakzioetan... aritzeko pertsonak behar dira.

### ■ LEHIAKETAK

• Emakumeak kontari VI. narrazio lehiaketa Bilboko Emakume Zerbitzuak eraturik. 18 urtetik gorako emakumeei zuzendua, gai libre eta 5-12 orri bitarteko luzerako narrazio orijinalak behar dute izan. Epea: irailak 30.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

“Euskaraz besterik ez dut idazten”



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai, Anboto kalea 10-4. Tel.: 630 52 21 43.

• Apartamentuak eta txaletak salgai Torrevejan. 7.800.000 pta.tik 25.000.000 pta.ra. Tel.: 966 70 49 41.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Donostian, Antigua auzoan, hondartzatik 200 m.ra, abuztuan eta irailean. Tel.: 943 79 82 05. Gauz, 21:00etatik aurrera.

• Apartamentua alokatzen dut uda honetan, Laredon. Tel.: 943 79 52 80.

• Gela bat jarri nahi dut alokairuan. Tel.: 943 79 68 00.

• Etxebizitza alokagai Donostian. Uztailean eta irailean. Kontxako hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 21 08 21.

• Etxebizitza alokagai Donostiako Urbieta kalean. Datorren ikasturterako. Tel.: 943 21 08 21.

• Etxebizitza alokatzeko. Erdigunean dago. Bi solairu eta teilatupea ditu, lau gela, bi bainugela eta komuna. Tel.: 943 79 79 51.

• Igerilekua eta aire girotua duen apartamentua alokagai Saloun irailan, hondartzatik hurbil. Tel.: 943 79 38 84. 20:00etatik aurrera.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza errentan hartuko gendue lau ikaslek. Ahal bada, Eskola Politeknikoaren inguruan. Tel.: 943 77 16 61. 104. logela, 21:00etatik 22:15era.

• Etxebizitza nahi dut alokatu. Uztailetik aurrera. Tel.: 945 24 08 65. Zuriñe.

• Lau ikaslek etxebizitza alokatuko gendue Arrasaten. Tel.: 943 39 46 33.

• Errentan hartzeko etxebizitza behar da Arrasaten, lau ikaslerentzat. Tel.: 94 442 17 87. Ander.

• Pertsona batek etxe bat hartu nahi luke errentan. Tel.: 943 31 14 57.

• Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin osatzeko. Tel.: 943 69 24 03. Leire. Eguerdietan deitu.

• Hiru pertsonarentzako etxebizitza

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

alokatuko gendue Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 09 70. Amaia. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera deitu.

• Lau ikaslek etxebizitza behar dugu alokatzeko. Tel.: 943 88 50 74. Nagoire. Arratsaldean deitu.

• Etxebizitza errentan hartuko nuke San Andres aldean. Tel.: 606 86 71 97. Edurne.

• Bikote profesional batek etxebizitza bat beharko luke alokairuan Arrasaten. Tel.: 943 77 18 23.

• Ingeniaritzako 3. mailako lau neska adoretsuk ikasle etxebizitza alokatuko gendue. Tel.: 943 88 51 83. Alaitz.

### 5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatzeko laguna behar da Aramaion. Tel.: 943 77 04 98. Arratsaldean. Irene.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Altamira auzoan. Tel.: 943 77 13 20.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Bilbon. Tel.: 943 79 48 53. Gauz.

• Ikasle etxebizitza osatzeko pertsona

bat behar da Donostian. Tel.: 943 71 50 87. Aitor, arratsaldean.

• Etxeak osatzeko 3 pertsona behar dira Donostia erdialdean. Tel.: 943 79 50 99.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai San Andresen, Hiruki plazan. Tel.: 943 79 33 56.

### 9. Errentan emateko

• Garaje bikoitza alokagai, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

• Txabola alokatzen dugu Opakuako mendietan, inguruan 5.000 m<sup>2</sup> dituen. Tel.: 945 30 10 27.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Andra euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36. Jacqueline.

• Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu larunbat eta igandeetan. Tel.: 943 79 11 46.

### 18. Eskaerak

• Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tel.: 943 79 21 15. Aintzane.

• Umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko neska behar da. Beharrezkoa izango du autoa. Tel.: 943 71 50 92.

• Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 61 64.

• Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Tel.: 943 77 07 28.

• Ile apaintzaile esperientziaduna behar dugu. Tel.: 943 79 80 23.

• Zerbitzari bat behar da. Tel.: 943 77 14 93.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Enpresa zientzietan lizentziadunak eskolak emango lituzke udan, euskaraz edo erdaraz (goi maila eta erdi mailako ikasleei). Tel.: 943 79 86 06.

• Enpresa Zientzietan lizentziaduna den neska esperientziadunak 16 urtetik beherakoentzako eskolak ematen ditu. Tel.: 943 79 06 39.

• Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzetarako eskola partikularrak ematen dira, euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 943 79 83 46.

• Matematikan lizentziadun esperientziadunak eskola partikularrak emango lituzke udan. Tel.: 943 77 02 62.



## 21. Eskaerak

• Abuztuan ingelesezko eskolak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 96 69. 22:00etatik aurrera.

• Unibertsitateko lehenengoko fisika, kimika eta biologiakó eskolak jasoko nituzke. Presazkoa. Tel.: 629 26 39 45.

• Pertsona bat beharko nuke ordenagailuz lan bat pasatzeko. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00-23:00.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Rover 216,SSY saltzen dut, 200.000 pta.tan. Tel.: 943 79 37 99. Mikel. (08:00 - 15:00).

• M-SS matrikula duen Ford Escort XR3 Injection autoa salgai. 350.000 pta.tan. (negoziagarria). Egoera onean. Tel.: 943 77 13 91. Gaeuz.

• Fiat Regatta 70 SS-AB salgai 200.000 pta.tan. Negoziagarria. Tel.: 943 79 83 72. Gaeuz.

• Derby Senda L-6 50 cc, mistoa salgai. Egoera onean. 160.000 pta. Tel.:

943 79 05 95. 10:00 - 13:00.

• 1991 urteko Clio 16v salgai, 90.000 km. estra, 825.000 pta. Tel.: 629 30 28 17.

• Bi urteko Citroen Saxo 1-1i, SS-AY matrikuladuna salgai. Egoera onean. Laneko tel.: 943 76 11 20, eta etxekoa: 943 76 12 66. Xabi.

• Suzuki GSX-F/600 gorria salgai. 90. urtekoa da eta ongi zaindua dago. Tel.: 943 77 18 11. Ruben. 22:00etatik aurrera.

• Suzuki Lido 80cc SS-9754AK, 8.500 km. Egoera onean, ITV gauditurik. 95.000 pta. Tel.: 943 79 94 21. Fernando, goizez.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Area Pro 2 markako gitarra elektronikoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Estalkia oparitu egingo dut. Tel.: 943 79 73 30. Ekain. 21:00etan deitu.

• Lau lagunentzako Adria 3,75 m.ko karabana salgai. Abantze eta gutxi. Egoera onean. Tel.: 943 74 07 85.

• Errekadista negozioa salgai, fur-

goneta eta ohiko bezeroak barne. Prezio ona. Tel.: 943 76 09 12.

• Bi sofa salgai. Bata hiru pertsonarentzat da eta bestea pertsona batentzat. Fundak dituzte. Prezio onean. Tel.: 943 79 77 91.

• Kanpin gurdia salgai 120.000 pta.gatik. Tel.: 943 77 077 74.

• Spaniel-Breton arrazako txakur kumeak salgai. Interesatuak deitu 943 79 19 63 telefonora.

• Bi ate dituen hozkailua salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 50 81. Elena.

• Super nintendo salgai, gutxi erabilia, bost jokoeekin. Tel.: 943 79 50 81.

• Sango markako kanpin gurdia salgai. Hozkailu txiki elektronikoa oparitzen da erosiz gero. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 50 99.

• Kanpin gurdia saldu nahiko nuke, oso egoera onean eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.

### 27. Erosi

• Disko singelak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

• Bigarren eskuko mendiko bizikleta merkea erosiko nuke. Egoera onean eta aluminiozkoa. Neurri altua. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00- 23:00

### 30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbaillehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu astelehenetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

### 31. Galdu

• Joan den astean emakumezko erloju bat galdu nuen erdialdean. Korrea marroia eta esfera zuria du. Aurkitu baduzu, dei egin 943 79 03 29 telefonora.

• Betaurreko graduatu batzuk galdu nituen San Juan egunean. Tel.: 943 79 09 18.

### 32. Aurkitu

• Betaurreko batzuk agertu dira Larragain kaleko garajeen. Tel.: 943 79 86 28.

# TOTEM

# %50

Bakarrik hemen aurkituko duzu

Zapatak • Arropak • Tatuajeak • Bodypiercing-a

943 79 49 72 / 943 79 44 88  
Zarugalde, 14 • ARRASATE





**G**ure arteko mendizale-tasunaren adibide, 1924an **Bilboko "Sportsman"** aldizkarian Arrasateko mendigoizaleei buruz agertu zen argazki hau izan daiteke, zalantzarik gabe.

Argazkia urtarrilaren 21eko igandeari dagokio. 29 arrasatearrek Anbotorako

bidea hartu zuten goizeko zazpiak laurden gutxitan. Garagartzatik irten eta, Anbotora igo ostean, Urkiolatik bueltan jaitsi ziren. Handik Olaetara joan, Aramaion bukatzeko eta Santa Agedatik zehar itzuli ziren Arrasatera arratsaldeko zortziak laurden gutxitan. Negu-negua izan arren, jende ugari irten zen mendira egun hartan. Anbotora bidean C.

Estavill-Ondo Arrasateko mendizale taldeko kide batzuekin egin omen zuten topo eta baita C.D. Mondragon taldeko Uriarte, F. Aiastui, A. Azkoga eta Sagasta mendizaleekin.

Anboton, aldiz, Eibarko, Zumarragako eta Elgoibarko 25 mendigoizalarekin eta C.D. Bilboko beste 40 lagunekin elkartu ziren.

Argazkia Estavill-Ondo

taldearena omen da. Tamalez, egunkari zahar batetik ateratakoa izanda, ezinezkoa izan da nortzuk diren jakitea.

Bakarrik dakigu izkina-izkinan dagoena Julian Amozarrain dela.

*Argazkia eta berriemailea:  
Zumelaga*



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ..... ☎ 943 77 13 34

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak, Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia, Erdiko Kale, 22 - 1 ..... ☎ 943 79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ..... ☎ 943 77 03 96

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kirolegian ere bai) ..... ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- Lorenzo Martin, Rafael Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisí klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbaigiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) ☎ 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 943 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... ☎ 943 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22

## TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



**Teknologia eskubide bat da,  
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohdraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

**TALLERES OLA**

**OPEL**  
INGENIARITZA ALEMANA ZURE

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Erosbidea 3 (escara nabillora) Tel.: 943 79 05 86